

«Aita izaten da gehienetan
sendiaren barruko erasotzailea»



MAITE SANCHEZ RUIZ
Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez!
plataformako laguntzailea

hiruka

131. zenbakia

2018ko ekainaren 21etik uztailaren 4ra arte

«Gorputza oinarritzko lekua da aktibazio politikorako»

Lucrecia Masson (Argentina, 1981) ekintzaile feministak gorputz-disidentzia jorratzen duten hainbat artikulu kaleratu ditu, eta gai horretaz mintzatzera hurbildu zen joan den ekainaren 16an Algortara, Mujeres con Voz taldeak gonbidatuta.

GAIZKA AZKARATE SÁEZ | 5

LARRIALDIETAKO ANEKDOTAK IRAKURGAI

Gaizka Azkarate kazetariak bere lehen liburua argitaratu du: *092, dígame*. Bilboko larrialdi-telefonoko anekdotak batu ditu.

URIBE KOSTA JAIETAN | 8-11

PARTE-HARTZEA, SANPEDROEN OINARRI

Badatoz Sopelako jaiak. Egitaraua topatuko duzu erdiko orrialdeetan, baita eskualde osoan San Juan gauean egingo diren ekitaldiak ere.

HIRUKIRA OLGETAN | 12-13

UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hilabeteroko azken zenbakian ohi den legez, umeentzako jolasen atala topatuko duzue aldizkariaren erdiko orrialdeetan.

Adi!

Datorren astean ez da
HIRUKA astekaririk
argitaratuko; udako
bereziagaz itzuliko gara.

«Lodia izatea ere posizio politikoa da niretzat»

Lucrecia Masson (Argentina, 1981) ekintzaile feministak gorputz-disidentzia jorratzen duten hainbat artikulu kaleratu ditu, eta gai horretaz berba egitera hurbildu zen joan den ekainaren 16an Algortara.

IKER RINCON MORENO ▶



Lucrecia Masson *Transfeminismos: épistemes, fricciones y flujos* (Txalaparta, 2013) liburuaren egileetako bat da, *Activismo gordo* izeneko atalarena, hain zuzen. DANI BLANCO / ARGIA

Ekintzaile transfeminista izateaz gainera, «deskolonizazio bidean dagoen *sudaka* eta *lodia*» zarela aipatzen duzu. Berba horiek biak mespretxua adierazteko erabili ohi dira gizarte honetan. Zergatik erabiltzen dituzu zeure burua deskribatzeko? Jota Bombaça lagun kutun afroamerikarrak esaten duen legez: «Kolpea bueltatzeko». Mespretxuzko identifikatze hori desaktibatze egiten dut. Neureganatu egiten ditut esamolde horiek, eta nire egitetik, erakusten dut zer-zelako biolentzia dagoen beste norbait identifikatzeko aukeretan. Era berean,

Berben biolentzia
«Neure buruari *sudaka* eta *lodia* deituz, erakusten dut zer-zelako biolentzia dagoen beste norbait identifikatzeko aukeretan»

uste dut modu horretan indarrean dauden opresio-estruturak agerian uzten ditudala. Hala, irainari buelta emateaz gainera, gizartean betetzen dugun lekua argi uzten dut, opresioaren estrukturatik kanpo edo barruan gauden, alegia. *Sudaka* iraina da hemen, baina *euraka*, aldiz, ez. Pribilegioaren leku horretatik, munduan europarra izatetik, bestea izendatu daiteke, arrazaren ikuspegitik. Lodia izatea ere niretzat posizio politikoa da, gorputzaren ikuspegitik, eta uste dut gorputza oinarritzko leku bat dela aktibazio politikorako.

Udako Eskaintza 2018

aek udako plazer txikiak
pequeños placeres de verano

URIBE KOSTAKO AEK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

AIXERROTA BHI
IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
DBH 2: Matematika (Euskara/English)
DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D eredua + ikasgaiak ingelesez
· Zientzia modalitatea
· Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

euskaraz bizi nahi dut

INFORMAZIO +
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

Gorputz lodia kolonizatutako gorputza dela esaten duzu askotan. Mota horretako gorputzak «txarragoak» balira bezala hartzen dira; argaltasuna, aldiz, gailendu egin da... Gorputz lodia ikuspegi antirakalarietik militarizatzea garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste dut. Nire kasuan, ezin dut zeharkatzen nauten gauzetatik isolatuta loditasunean pentsatu; beharrezkotzat jotzen dut gorputzaren kolonizazioaren inguruko galderak egitea. Mendebaldeko zuri modernoaren zibilizazio-proiektua zenbateraino dago txertatuta gure gorputzean? Horri datoz zenbait gorputz-arazo; inoiz ez dira neutroak, ezta kolore bakoak ere.

Mendebaldeko gizartearen argal eta lirain egoteko dieta egin behar dela esan ohi da. Militarismo hutsa da, ezta? Uste dut hori gorputza diziplinatzea dela. Lirain egoteko kontuz ibili behar dugula esaten digute, linea jakin baten gainetik edo azpitik ez egoteko. Dietak, jan-neurriak... Gorputzaren «erregimentazioa» argia eta ebidentea da.

Loditasuna kontrolerako dispositiboa da? Nire laguna den Laura Contrerak gorputzen poliziaz egiten du berba. Aurreko galderan «erregimentazioa» aipatu dut, hau da, gorputzaren diziplinazioa. Gustuko dut esatea norbait lodia dela egoera horri aurre egin gura diolako. Gizarteak aldatzeko eta muzin egiteko aginduak ematen dizkigu uneoro, hau da, gure gorputza bizitzeko izan behar dugunera hurbildu guran: argalak.

Lodi egoteak osasuntsu ez gaudela esan gura du? Lodi dagoen oro osasuntsu ez dagoelako eta argala den edozein osasuntsu dagoelako ideia baztertu beharra dagoela uste dut. Hori ez da horrela, kasu denetan. Gorputz denak ezberdinak dira. Bizitza posiblea da askotariko neurrietan, eta gorputz bakoitzak jakingo du zer den ondo egotea norberarekiko. Izan ere, pisu jakin batetik gora egoteak ez du esan gura osasuntsu ez gaudenik; bestelako gauzek ere eragina dute osasunean.

Noiz erabaki zenuen zure gorputza erabiltzea borroka-zelai modura eta beratu politizatzea? Gaztea nintzenean, hurrengo denboraldirako argalago egotea izaten zen nire desirarik handiena. Neguan indar handiz desiratzen nuen udaberrirako argalago egotea. Memoria dudaretatik, mantendu den ia desiorik bakarrenetarikoa izan da hori. Ildo horretan, nire gorputza militarizera eraman ninduen izan zen inguruko beste emakume batzuk nire egoera berdinean zeudela ikustea. Hainbat kidek sentitzen genuen gauza bera, eta horrek eragin zuen kolektibotasunetik lan egiten hastea.

Normalean, norbaitek beste bat iraindu gura duenean, lodi moduko adjektiboak erabiltzen ditu. Argi dago eraso matxista dela emakumeekiko, baina, gizonezko bati lodi deitzen diotenen kasuan ez da hala izaten. Gizartearen eraikita dagoen moduaren ondorioa da? «Lodia» esangura asko dituen berba

«Zer kolorekoa izan behar du emakume batek feminismoaren subjektu izateko?»



Bigarren izenik edo abizenik gabeko feminismoaren eta transfeminismoaren kontzeptuez berba egiten genbiltzala, Huelvako marrubi-zelaietan beharrean dauden emakumeen kasua mahai-gaineratu du Massonek. Gogoratu duenez, emakume horiek sexu- eta lan-abusuak jasan dituzte azken egunotan. «Emakumeak dira horiek, bai, baina marokarrak. Hala, feminismoak erantzun azkar eta gogorra eman behar zukeen egoera horretan, baina ez zen hala izan», deitoratu du. Aldiz, erantzuna pertsona emigranteen eta arrazakeriaren kontrako mugimenduetatik jazo zen. Hori dela eta, askotariko galderak egin ditu Massonek: «Gutako bat ukituz gero emakume denok ukitzen gaituztela diogunean, zertaz ari gara?», «Nortzuk dira horiek denak?», «Nolakoa eta zein kolorekoa izan behar du emakume bat feminismoaren subjektu izateko?».

da. Lodia utzikeria da, sexya ez dena, borondate bakoa, baldarra, desiragarria izateko aukerarik ez daukana... Irain oso gogorra da hori, eta min egiteko erabiltzen dugu, eragin handia duelako. Horri aurre egiteko lan egiten dugu, eta horretan gauden, zauri hori ahazten.

Lodifobia ezberdina da emakumeen eta gizonezkoen kasuan? Bai, esango nuke baietz, ezberdina dela. Bizi garen gizarte zuri, moderno eta mendebaldeko honetan, bai behintzat. Publizitatean, berbarako, argaltzeko behararen agindua emakumeengana joan ohi da.

Epistemología rumiante izeneko lanean «behi» berba erabiltzen duzu ezarritako arautik kanpo dagoenaren metafora modura. Zer dela eta? Nigaz zerikusia daukalako erabiltzen dut terminologia hori. Behiak nire haurtzaroagaz oso lotuta egon dira, eta euren erritmoagaz bat egiten dut nik ere. Geldoa sentitzen naiz, behi baten moduan. Gainera, «behi» berba ere lodiak iraintzeko erabiltzen da askotan; hori dela eta, hitz hori ere erreskatatu gura dut.

«Hausnarkaria ez da azkar mugitzen, abiadurari aurre egiten dio eta ez du irabazi gura». Esaldi horren bitartez gizartearen kontra doanaz berba egiten duzu, denaren gainetik produztu gura duen gizartearen kontra... Bai. Gizarte hori modernoa eta mendebaldekoa da, eta kapitalismoa da bere produkzio-eredua. Baina horrek denak oinarri sakonago bat dauka: aurre-rabidearen aitzakian mundu osora hedatzen ari den kolonialismoa, alegia. Aipatu dituzun ideia horiek denak aurrerabide horregaz daukate zerikusia, eta uste dut horiek ere ahaztu behar ditugula, alde batera utzi.

Zer motatako prozesua egin daiteke gorputzen askotarikotasuna pertsonen dibertsitate modura ulertzeko eta ez baztertuta dagoen zerbait modura? Ez dakit, uste dut habitatzeko ditugun guneak eraldatzen hasi behar dugula, asmo unibertsalistarik gabe. Ni nire eremu txikitik has naiteke; zu zureaz arduratuko zara?

Transfeminismora bueltatuz, zelan definituko zenuke mugimendu hori? Ez dakit transfeminismoa bere horretan definitu dezakedan edo ez; niretzat esperientzia bat da, mundukoa, politikoa eta gorputzekoa. Era berean, modu arin batean esango nuke askotariko borroka zeharkatzen dituen feminismoa dela, historikoki mugimendu hori ezaugarritu duen «emakume» subjektuaren ataria handitzen duena, hain zuzen. Esan beharra dago, transfeminismoagaz, horrela bakarrik deituta, bestelako adjektiborik gabe, feminismoagaz gertatzen den berdina gertatzen dela. Hau da, zurieta da soilik. Izan ere, hura zein den argitzeko bigarren izenik edo abizenik ez duen feminismoa zuria da, eta badaude bestelako feminismoak: komunitarioa, beltza... ◀

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA

UDAKO IKASTAROAK

16 URTETIK GORAKOENTZAT PARA MAYORES DE 16 AÑOS
UZTAILA ETA IRAILA JULIO Y SEPTIEMBRE

Matrikula zabalik!

Ekainaren 1etik 27ra Del 1 al 27 de junio
Azterketa ofizialak prestatzeko, 5 ordu egunero!

Heldu euskarari!

Bulego ordutegia Horario de oficina: 9:30-17:00

UDAN ERE EUSKARAZ!

6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA JÓVENES DE 6-16 AÑOS

Ikastaroa noiz?

Uztailaren 2tik 27ra arte, 9:00etatik 12:00etara
Del 2 al 27 de Julio, de 9:00 a 12:00h.



GETXO | Umeen kontrako sexu-indarkeria

«Umeek behar gaituzte, eta oraintxe bertan behar gaituzte»

Euskal Herri osoko eragileek plataforma bat osatu dute umeen kontrako sexu-indarkeria salatzen. Domeka honetan, ekainaren 24an, manifestazioa egingo dute, Algortan. Telletxe plazatik aterako da mobilizazioa, 13:00etan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Jendarteak kanpoko arrisku batez lotzen du umeen aurkako sexu-indarkeria, baina gehienetan ez da hala izaten: «Kanpoko munstroek gure seme-alabak kaleetan zelatazen dituztela pentsatu arren, gutxienez hamar erasotzailetik sei umearen ezagunak dira; gehienak senideak dira, edo oso hurbileko ezagunak», Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez! plataformako kide Maite Sanchez Ruizek adierazi duenez. Erasotzailea heldu ezagun bat bada, eguneroko bizitzan dagoen norbait, hark biktima kontrolatzeko, manipulatzeko eta menderatzeko daukan gaitasuna handitu eta errazten da, Sanchezen ustez. Are gehiago, «aita izaten da gehienetan zigor barik geratzen den familia barruko erasotzailea».

FAMILIA NUKLEAR PATRIARKALA. Maite Sanchezek ondo eza gutzen du indarkeria mota hori, urte asko baitaroa errealitate horrek eta ezagutzera ematen diren kasu apurrek jasotako trataera mediatikoa, juridikoa, politikoa eta soziala aztertzen. Zertaz berba egiten gabiltzan azaltzeko orduan argi dauka Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez! plataformako kideak: «Familia nuklear patriarkalaren irudiaren arabera, aita da familiaren arduratzen den heldua eta, hortaz, eredu hori emakumeen eta umeen aurkako indarkeriaren iturria da oraindik. Oro har, premiak asetzen dituen eta zaintzen gaituen babesleku izan behar duen familia, kasu askotan, sufrimenduaren eta zigorgabetasunaren gotorleku bihurtzen da».

Datuak datu, familia-esparruaren barruan, umeen kontra egiten den sexu-indarkeria da ohikoena eta gehien errepikatzen dena. Baina, aldi berean, beldurgarriena, larriena eta ondorio gogorrenak uzten dituen ere bada.

Lau neskatik batek eta zazpi mutiletik batek zelanbaiteko sexu-indarkeria sufrituko dute 13 urte bete baino lehen. Hel-



Haurren kontrako sexu-indarkeriaren aurrean inpunitaterik ez! izango da manifestazioaren goiburua.

%2 - %10

artean baino ez dira ezagutzera ematen diren kasuak.

13 urte

bete baino lehen, lau neskatik batek eta zazpi mutiletik batek sufrituko dute zelanbaiteko sexu-indarkeria.

10etik 6

erasotzailek umea ezagutzen dute aurretik. Gehienak senideak dira.

duei dagokienez, gutxienez bost heldutik batek jasan du sexu-indarkeria umezaroan.

ZIGORGABETASUNA. Bestalde, erasotzaileek sinesgarritasun eta zigorgabetasun osoa daukate alde, eta biktimak, ostera, babes barik geratzen dira sistematikoki, Sanchezen berbetan: «Salatzen diren kasuen %90 ez dira ahozko epaiketara iristen. Hau da, ipintzen diren 100 salaketatik 90 artxibatu egiten dira, behar den moduan ikertu barik», nabarmendu du. Sanchezen iritziz oso-oso hurbil daukagu arazoa eta, beraz, datu horiek aintzat hartzen hasi behar dugu.

Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez! plataformako kideak gaineratu duenez, «onartu egin beharko dugu erasoak jaso dituzten umeak dauden bezala, erasotzaileak ere badaudela. Gehien-gehienak familiako edo gertuko gizonak dira. Ehunekoari erreparatuz gero, oso hurbileko arazo bat daukagula ikusiko dugu, eta ezin dugu beste alde batera begiratzeko jarraitu. Umeek behar gaituzte, eta oraintxe bertan behar gaituzte». ◀

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

BAI

Kalitatea ERASMUS+

Innovación

Desde 1963

Algorta

Areeta Leioa Berango Sopela

Guarderia

Jasotokia

Amak

Amak

Berriak

KIVA

Zaketa kooperatiboa

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA (Arene azpi, 15)

94 430 54 78

www.sanikolas.eus

GetxoGas

REPSOL

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

GAIZKA AZKARATE SÁEZ | 092, dígame liburuaren egilea

«Saguzarrak kosk eginez gero banpiro bihurtzeko beldur zen bat»

Gaizka Azkarate Sáez (Erandio, 1967) kazetariak bere lehenengo liburua argitaratu du: **092, dígame**. Bertan, Bilboko Udaltzaingoaren larrialdi-telefonoan zazpi urtean batutako anekdotak kontatu ditu.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►



Erandioko Zazpi Kolore, Leioako Iris eta Bilboko Cámara liburu-dendetan eta Internetez eros daiteke liburua. HODEI TORRES

Bilboko Udaltzaingoaren 092 telefonoan ibili zinen behar-rean, ezta? Bai, Bilbon legez, Bermeon, Lekeitio eta Gastei-zen badago halakorik; Estatu espainiarrean ere, hainbat lekutan. Hemen, herri gehienak 112 telefono-zerbitzuan sartuta daude. Hala, Bilboko Udaltzaingoan zentratu naiz; zazpi urte eman nituen han beharrean eta anekdota denak bertakoak eta benetakoak dira. Hasi nintzen 944 205 000 telefonoan, zentralitan, eta bertatik ere anekdota batzuk eroan ditut liburura, baina gehienak larrialdikoak dira. Niri jazotakoak dira denak.

Eta zelan bururatu zitzaizun 092, dígame liburua idaztea? Langabezian nengoen, arazo pertsonalak nituen, tartean osasun-arazo bat ere. Buru-makur nengibilen, eta halako batean argi ikusi nuen: «Honela ezin dut segi». Baneuzkan kontatzeko historia batzuk eta horrek eman zidan aukera bolada txar horretatik irteteko. Liburua idatzi nuen, baina tiraderan utzi nuen gordeta, ondo pentsatu arte zelan atera, laburra delako: deiak dira eta dei bakoitzak minutu bat edo minutu eta erdi irauten du, gutxi gorabehera. Ezagun batek komentatu zidan hobe zela apur bat nobelatzea eta horrela egin nuen. Halere, liburua tiraderara bueltatu nuen, Erandioko zinegotzi batek, idazlea denak, TintaMala argitaletxearen telefonoa pasatu arte. Eurakaz berba egin nuen, eta aurrera jo nuen.

Bigarren zatiak

Gaizka Azkarate pozik dago liburuaren oihartzunagaz eta salmentagaz, «ameslaria» dela eta «harrera hobea» espero zuela aitortu arren. Hala, bigarren zatia argitaratzeaz pentsatzen dabil egunotan. Halere, behar bitan dabilenez ez dauka denbora askorik, eta *El Ekok* ere lapurtzen dio zerbait. Antzinako *El Eco de Erandio - Erandiotarren Aldizkaria* paperaren lekua hartu duen bertsio digitalean dabil, musu-truk. Izan ere, kazetari erandioztarrak hilabetekari mitiko hartan egin zuen lan, «kobratu barik», beste kazetari batzuek legez. «Dendariei eske eta eske ibiltzen ginen, zenbakiak atera ahal izateko. Krisialdia heldu zenean larri baino larriago geratu zen proiektua. Gainera, jendeak lana topatzean uzten zuen eta gero eta gutxiago ginen. Azkenean, logikoa denez, desagertu egin zen». Bilboko Udaltzaingoko telefonoan zebilenean ipini zuen martxan bertsio digitala.

Anekdota kutunen bat daukazu? Ez, baina badago bat liburu honen erruduna dena. Egun batean telefonoak jo zuen eta nik ohi legez esan nuen «Bilboko Udaltzaingoa, gabon». Beste alde-tik galdetu zuten: «Gaur zer egun da?». «Martitzena», erantzun nion. «Martitzena? Ez da astelehena?». «Ez, ez, gaur martitzena da», eta hilabetea eta zenbakia ere esan nizekion. «Baina ez da astelehena?». «Ez, martitzena da». «Bada, eskerrik asko» esan eta eskegi zuen. Dei hori hainbat alditan errepikatu zen, hainbat egunetan. Horrek zer pentsatua eman zidan. Handik denbora batera, gogoratu nintzenean, pentsatu nuen arazo larria izan behar zuela pertsona hark. Eta anekdota horri esker, libururako anekdotak batzen hasi nintzen.

Larrialdi-zerbitzua izanda, denetarik entzungo zenuen. Badago dei bat ez dena beldurgarria baina xarma daukana: mutil batek deitu zuen, bere logelan saguzar bat sartu zelako. Kontu arrunta zen, suhiltzaileei eta Aldundiak horrelakoetarako daukan zerbitzu bereziari pasatzekoa, baina arreta deitu zidana izan zen mutilak egin zuen iruzkina: «Izututa nago; txakurra gela barruan dago eta beldur naiz bila sartzeaz, agian saguzarrak kosk egin eta banpiro bihurtuko naizelako». Komentario hori entzun nuenean, zur eta lur geratu nintzen, baina profesionala izan eta egin beharrekoak egin nituen. ◀

Íñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Ostegun, bariku eta zapatuetan
20:00etatik-13:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Urbe Kostako gazteria saltsan!!

ESKUBALOIA | Denboraldiaren errepasoa

Eskubaloian ere badago harrobia

Uribe Kostako eskubaloia-klubetarako hainbat gertaera garrantzitsu egon dira aurtengo denboraldian. Bizkaiko Kopan hiru titulu irabazi zituzten eskualdeko taldeek, eta beste lau finaletan jokatu zuten. Ugeraga mailaz igo da berriro ere.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Denboraldia amaitzeko udako sariketak baino ez zaizkie falta eskualdeko eskubaloia-klubei. Hala, ohiko lehiaketek eman dutenaren gainean hausnarketa egin du Amaia Arancibia Etxeberriak. Berango Eskubaloia Taldeko presidenteak joan den maiatzaren 27an jokatu ziren Bizkaiko Kopako finalei erreparatu die. Bere ustean, oso egun garrantzitsua izan zen «gure kirolarentzat». Goizetik gauera emakumezko zein gizoneko kategoria denetako finalak jokatu ziren. Arancibia nabarmendu duenez, Barakaldoko Lasesarre kiroldegian hiru partidu batera martxan egon ziren, uneoro: «Hau da, partiduak banaka ikusi beharrean hiru aldi berean gozatzeko aukera eduki genuen».

Uribe Kostako Mankomunitateko lau taldek bertan egoteko aukera irabazi zuten aurtengo denboraldian egindako ahaleginari esker. Urduliz Eskubaloiko gizonezko kadete-, gazte- eta senior-taldeak egon ziren, berangoztarrak zuzentzen duen Berango Eskubaloiko emakumezko senior-taldeagaz batera. Arancibiaren ustean, «lau taldeek oso partidu gogorrak baina parekatuak jokatu zituzten; ospatzekoa da, Urduliz Eskubaloiko gazteak eta seniorrak Kopako irabazle suertatu zirelako eta kadeteak eta Berangoko emakumezko seniorrak, oster, txapeldunordeak. Izugarritzko festa izan zen Uribe Kostako eskubaloirako». Hala, kopa altxatu ahal izan zuten Urdulizko seniorrek eta gazteek, kasu bietan Basauri mendean hartuta, 29-26 eta 37-24, hurrenez hurren. Urdulizko kadeteek dagokieenez, Askartzakoak osatu zuten konbinatua, eta Basauriren



Mankomunitateko taldeek erakustaldia eman zuten Bizkaiko Kopan. © BERANGO ESKUBALOIA - URDULIZ ESKUBALOIA

Ugeragaren igoera

Sopelako Ugeraga Eskubaloia balentria ederra lortu du. Sortu eta hiru urtean mailaz maila igo da Bizkaiko Bigarren Mailatik datorren denboraldian Euskadiko Txapelketan lehiatzera. «Umiltasuna, lan eskerga eta familia-filosofia» dira gakoak.

aurka galdu zuten, 27-40. Emakume berangoztarrek ere eduki zuten arerio bera, eta Basaurik irabazi zien, 25-21.

Halere, aipatutako taldeak ez ziren izan Uribe Kostako ordezkari bakarrak: beteranoetan, Leioako gizonezkoek Bizkaiko Kopa lortu zuten, Laudoren aurka, 33-27ko emaitzari esker; beste talde leioztarrari, Askartzari, puntu batez ihes egin zion garaipena, Trapagaranen aurka 30-31 galduta; azkenik, Lehenengo Mailako finalean, Trapagaranek beste titulu bat lortu zuen, kasu horretan Romori 30-22 irabazita. ◀

Irunbat
galp energia

Martitzen eta zapatuetan
ESKAINZA BEREZIA

Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Antzerkia

Ekainak 22, barikua
Ipuinaren Ordua
18:00 | Romo Kultur Etxea | Getxo
Margo-ipuinak saioa, Inés Bengoagaz. 4 eta 8 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Ekainak 23, zapatua
Ttiki ttaka
18:00 | Zubilletako zelaia (Algorta) | Getxo
Kale-antzerkia bultzatuz jaialdiaren barruan. Erre Produksioak taldeagaz. Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Ekainak 24, domeka
Amigas desgraciadas
19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu Antzerki Taldeagaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Azokak

Ekainak 22, barikua
Elkartasun-azoka
18:00 | Astrabuduko eliza | Erandio
Gizarte Unamaz Alkartuak elkarteak antolatuta. Txokolate-jana egongo da eta taldeko umeek egindako eskulanak salduko dituzte; batutako dirua Save the Children erakundeak bullyinga prebenitzeko egin duen kanpainarako izango da.

Ekainaren 24ra arte
Bigarren Eskuko Liburuen Azoka
Algortako kultur etxea | Getxo
Ayuda Más gobernuz kanpoko erakundeari emango diote dirua; Peruko Huasquicha komunitatean hezkuntza-proiektua egiten dabilta.

Bertsolaritza

Ekainak 22, barikua
Balkoitik balkoira
22:00 | Algortako Portu Zaharra | Getxo
ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariek parte hartuko dute. Euskaraz. Sarrera, doan.

Dantza

Ekainak 22, barikua
Balleteko ikasturte-akabuko erakustaldia
18:30 | Jai Alai frontoia | Plentzia
Araldi emakumeen elkartegaz. Sarrera, doan.

Erakusketak

Ekainaren 24ra arte
Gaude
Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Beste adimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gaude elkarteak kideen lanak ikusbide.

Kirolak

Ekainak 22 eta 23
La Kantera Invitational
La Kantera skate-pista | Getxo
Getxo Skate Week jardunaldien barruan. Lehenengo egunean, skate-a egiteko aukera denontzat (11:00-21:00), parrillada (20:00) eta Purple Vellozet eta Pizza Knife taldeen kontzertua (20:30) egongo dira. Bigarren egunean egingo dute La Kantera Invitational nazioarte-mailako skate-txapelketa, 10:00etatik aurrera.

Musika

Ekainak 21, eguena
Fetén Fetén
20:00 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo
Andrés Isasi Musikalia bandagaz joko du bikoteak. Sarrera: 5 euro.

Ekainak 22, barikua
Jorge Drexler
21:00 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo
Salvavidas de hielo diskoa aurkeztuko du abeslariak. Gaztelaniaz. Sarrera: 25 euro.

Ekainak 24, domeka
Inprobisazio-saioa
19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo
Andrés Isasi musika-eskolako jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

Ekainak 27, eguaztena
Pandero-joleen ikasturteko akabuko ikuskizuna
19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Meñakoz kultur elkarteak antolatuta. Doan.

Ekainak 29, barikua
Berango Kantari
20:30 | Frontoia | Berango
Parte-hartzea libre.

Ekainak 30, zapatua
Earth songs project
21:30 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo
Rock-talde bat eta Lilura eta Eskuz Esku abesbatzetako umeak igoko dira agertokira. Sarrera: 10 euro.

Rustyc Music Fest
Egun osoa | La Galea hipika-kluba | Getxo
Stereosonik elkarteak antolatuta. Sarrera: 7 euro (umeak, doan). Informazioa: Stereosonik.com

Uztailaren 4tik 8ra arte
Getxoko Nazioarteko Jazzaldia
Algorta | Getxo
Informazio gehiago: Getxo.eus

Topaketak

Ekainaren 21etik 23ra arte
Lanbro beltza
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Genero beltzari buruzko ekitaldiak egongo dira. Informazioa: Brumanegra.wordpress.com

Ekainak 22, barikua
LaKanter a Prototyping 3DLAB
17:00-21:00 | Arrigunaga | Getxo
Diseinua eta inprimaketa. Informazioa: Getxo.eus

Txangoak

Ekainak 24, domeka
Burdin Hesia
09:00 | Urko kiroldegiko parkinga | Sopela
Informazio gehiago: turismo@sopela.eus

Zinema

Ekainak 23, zapatua
Basada en hechos reales
20:15 | Kultur etxea | Urduliz
12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 4,50 euro.

NAZIOARTEKO JAIALDIA

42

04/08

UZTAILA

GETXO JAZZ

21:00 BIOTZ ALAI ABESBATZA PLAZA

2018

ASTEAZKENA

04

TALDE LEHIAKETA

PEPE ZARAGOZA QUINTET

CHARENÉE WADE

OSTEGUNA

05

TALDE LEHIAKETA

ANDERS FJELDSTED SEXTET

KENNY GARRETT QUINTET

OSTIRALA

06

TALDE LEHIAKETA

BILDERBAND

BILLY HART QUARTET

FEATURING JOSHUA REDMAN

LARUNBATA

07

TALDE LEHIAKETA

ALEXEY LEÓN QUARTET

CHANO DOMÍNGUEZ SEXTETO

IGANDEA

08

TALDE LEHIAKETAREN IRABAZLEA

MICHEL CAMILO & TOMATITO

SARRERA SALMENTA

k

Sarrera salmenta, benta de entradas: www.kutxabank.es

Ortarako kutxazainak: Cajeros multiservicio

GETXOKO KULTUR ETXEA

ALGORTA - Villamonte, 88

ROMO - Santa Eugenia, 1

T. 944 914 080

kulturetxea@getxo.eus

www.getxo.eus

ANTOLATZAILEAK

Getxo

BABESLEAK

Bizkaia

inaem

EUSKADI - BASQUE COUNTRY

bbk

EL CORREO

LAGUNTZAILEAK

INSALUS

ORTASA MOTOR

«Sopelan jai euskaldunak egot



Azken urteetan egin legez, Sopela eta Larrabasterrako Jai Batzordeak antolatuko ditu San Pedro jaiak. Euskara, parekidetasuna eta parte-hartzeko aukera ematea izango dira ardatz nagusietakoak.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HIRUKA ►

Bospasei urte dira Sopelan jai-batzorde herrikoia sortu zela (bertako kideak ez dira gauza izan datua zehazki gogoratzeko), eta daborduko ohiko bihurtuz doaz haregaz batera sortutako hainbat berrikuntza, batzordekoen esanetan jaien indargune direnak hain zuzen. Horren adibiderik argiena, euren iritziz, jai-hasiera bera da: «Kuadrillen jaitsiera nabarmenduko genuke», dioskue; «horixe da herri osoa batzen den momentua, guretzat hunkigarriena da».

Ekainaren 28an (eguna) izango dira jaitsiera eta pregoia, San Pedro jaiei hasiera emateko. Aurten Sopelako Euskaraldia taldeari egokituko zaio irakurtzea. Jai-batzordearen helburuetako bat, jaio zenetik, festa euskaldunak sortzea da, eta horregatik bultzada eman gura diote helburu horregaz bat egiten duen elkarte bati. Horrez gain, ekintzetan euskararen presentzia segurtatzen ahalegintzen dira: «Euskaraz kantatzen duten musika-taldeak ekartzen saiatzen gara, eta antzezlan gehienak ere euskarazkoak izaten dira, beharbada nagusiei zuzendutakoak ez, baina...; bestalde, umeentzako gunean dabilzan

ander deuna
i k a s t o l a

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA
946 760 266 · 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

errisia
Kafetegia

Unde para jaietan!

- GOSARIAK
- INPORTATUTAKO GARAGARDOAK
- EROATEKO PINTXOAK
- KONBINATUAK

Elizalde kalea 3, SOPELA
Tel: 944 048 648

La Kala
Sopela

IPINTXO GOXO GOXOAK!
IAIETAN KONTZERTUAK!

Sertutxa, 5
SOPELA

944 048 108

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

- | Tendinitis
- | Esginzeak
- | Osteopatia
- | Bizkarreko mina
- | Giharretako lesioak

PARTIKULARRAK ETA ASEGURU KONPAINIAK

Loitzun Izaola **Iratxe Olabarrieta**
Fisioterapeuta Fisioterapeuta
kol. zb./col. n. 459 kol. zb./col. n. 589

Sabino Arana 30 atzean - 48600 Sopela
☎ 946 760 560 ☎ 627 674 536

4BIDE
PINTURAK

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA
946 762 992
4bidepinturak@gmail.com

tea da gure helburuetako bat»

begiraleek euskaldunak izan behar dute eta bertan entzuten den musikak euskarazkoa izan behar du».

Pregoiaren ostean txupina jaurtitzeko ardura, azken urteetan ohitura denez, aurreko jaietako kuadrilla-txapelketaren irabazleak edukiko du: Ekin Horri. «Kuadrillen mugimendua gugaz batera sortu zen», gogoan daukate jai-batzordeko kideek, «eta polita da gero eta indar handiagoa hartzen dabilela ikustea». Edozelan, jakitun dira adin-tarte bateko sopoloztarrak biltzen direla kuadrillen inguruan, 15etik 30era bitartekoa, eta edade denetakoak kontuan hartu beharra dagoela. Honenbestez, jai-batzordeak aldarrikatu gura du irekia dela, eta talde zein banakoek ateak zabalik dauzkatala bertan parte hartzeko.

ELKARTE BAKOITZAK BERE ALEA. Horren emaitza da herriko taldeek egitarauan daukaten protagonismoa, eurek antolatzen baitituzte ekintzetako asko, nork bere eremuan. Jai-batzordekoek aitortzen dute eurentako gehienak gazteak izanda batzuetan kostatu egiten zaiela beste adinekoen gustuak zeintzuk diren jakitea, baina elkarte bakoitzari zer gura lukeen galdetuz sopoloztar denak asetzeko moduko jaiak antolatzen dituztelakoan daude.

Ezinbestekoa da, horretarako, eurakaz elkarlanean dabil-tzan udal-teknikarien laguntza: «Haiek profesionalak dira eta ikuskizunak ematen dituzten taldeak ezagutzen dituzte; gero mahai-gainean ipintzen dizkigute aukerak, eta azken erabakia gurea da. Funtsezko laguntza ematen digute guk ondo ezagutzen ez ditugun arloetako ekitaldiak antolatzeko».

Nerabeengana ailegatzea da zailena, diotenez, «baina ez gara haietaz ahazten». Izan ere, aurten beren-beregi ipini di-

Herria batuta

«Egitarautik kuadrillen jaitsiera nabarmenduko genuke, hori delako herri osoa batzen den momentua, guretzat hunkigarriena da»

Genero-oreka

«Batzordea jaio zenetik berdintasuna eta parekidetasuna benetan lortzea izan da gure helburuetako bat»

Parte-hartzea sustatu

«Parte-hartze giroa dago, oraindik gura genukeen bestekoa ez bada ere. Ekintza batzuetarako ezinbestekoa da, baina ez da erraza»

tuzte adin horretakoentzako ekintzak, Bailearen parkean. Umeei dagokienez, ohiko gunea edukiko dute Zipiriñe eskolan, jai-batzordearen barruan dabilen guraso-taldeak antolatuta.

PAREKIDETASUNAREN BILA. «Batzordea sortu zenetik, berdintasuna eta parekidetasuna bermatzea da gure helburuetako bat», azaldu dute jaien antolatzaileek. Helburu hori benetan lortzen zebiltzan neurtzeko, aurtengo jaiak diseinatzeko hasi baino lehen diagnostikoa egin zuten. «Hortik ideiak atera dira, eta jai-batzordeak irizpide batzuk ipini ditu». Hutsuneak hutsune, ekintza guztietan parekidetasuna bermatzeko pausoak egin direla uste dute batzordeko kideek. Esanguratsua da, hedabideetan daukan oihartzunagatik, pilota-partidu profesionalek gizon zein andrazkoenak izan beharra, «eta emakumeenak ere ETBn erakutsi beharra, kontratuan hala jasota dago eta». Bestalde, ziurtatzen dute musika-taldeen artean emakumeak ere egon daitezela.

Herritarren parte-hartze zuzenagaz zerikusia daukaten arloetan ere bide beretik jo dute. Berbarako, kuadrillen jolasetan denen parte-hartzea errazteko neurriak hartuz, «indar fisikoa behar duten ekintzei lehentasuna eman barik». Horren adibide da, pilota-partidu herrikoietarako emakume gutxik izena ematen zutela ikusita, zela erre lehiaketa martxan ipini izana. Horretan bai, lortu da andrazkoen presentzia handitze. «Aurten, gainera, taldeek mistoak izan behar dute derrigorrez».

Hala, urtez urte parte-hartzea indartzen dabil jai-batzordea, «giroa, zentzu horretan, oraindik gura genukeen bestekoa ez bada ere». Ez da helburu erraza, baina bai ezinbestekoa sustatu gura duten jai-eredua lortzeko. Bidean daude. ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

PRESTATU ZURE KOTXEA UDARAKO!:

hozte-sistemaren egoera aztertu

eroan beti **ura**

haizetako **eguzkitakoa** ipini

gurpilen **presioa** ikusi

aire **girotua** errebisatu

arropa **erosoagaz** gidatu

Bidaia on!




Egitaraua

Ekainak 28, eguena

- 19:00** Kuadrillen jaitsiera, txosnagunetik udaletxeko plazaraino. Ondoren kuadrillen erakustaldia eta kartelen lehiaketaren sari-banaketa.
- 20:30** Pregoia udaletxeko plazan, Sopelako Euskaraldia taldearen eskutik. Ekin Horri kuadrillak jaurtiko du txupina.
- 21:00** *Kili Kili Punk* umeentzako erromeria Sukar taldeagaz. Udaletxeko plazan.
- 21:00** Dantzaldia Amigos del Swing taldeagaz, Jauregizar plazan.
- 21:30** Txosnen irekiera.
- 22:30** Suzko zezena udaletxeko berdegunean.
- 23:30** Erromeria Sukar taldeagaz, udaletxeko plazan.

Ekainak 29, barikua

- 10:30** Kalejira udaletxetik Jauregizar plazara, Sopelako Barinatxe txistu-taldeagaz eta Txantreako erraldoiakaz.
- 12:30-14:30** Txosnen irekiera.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Txu-txu tren.
- 11:00** Meza nagusia, San Pedro Scola Cantorum abesbatzak kantatua.
- 11:30** Eguzkilore taldeak dantzatutako aureskua, Jauregizar plazan.
- 12:00** Kalejira Jauregizar plazatik udaletxera, Sopelako Barinatxe txistu taldea, Sopelako Panderojoleak, Txantreako erraldoiak eta Meñakoz eta Eguzkilore dantza-taldeakaz.
- 12:00-14:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan: makillajea, bisuteria eta pop up.
- 12:30** Dantza-emanaldia udaletxeko plazan, Sopelako Eguzkilore eta Meñakoz taldeakaz.
- 13:00** Bitsaren jaia Zipiriñen.
- 13:00** Tortilla- eta sangria-lehiaketa txosnetan.
- 13:30** Ramón Burgos mariachi-taldea udaletxeko plazan.
- 13:30** Txorizoa denontzat udaletxeko plazan.
- 17:00-20:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan: arkitektura-eraikuntza, luma-margotzea eta zientzia bisuala.
- 17:00** Briska-txapelketa udaletxean, Sopelako Itzartu Emakumeen Elkartek antolatuta.
- 18:00** Kuadrillen arteko ur-jolasak, udaletxeko berdegunean.
- 19:00** 62. eskualdeko paleta-txapelketaren finalak udal-pilotalekuan.
- 19:30** Uribe Kostako III. zantzo-txapelketa udaletxeko plazan, Meñakozen eta Sopelako Panderojoleen eskutik.
- 20:00** Kontzertua: *Mocedades gogoan*. Ana Bejerano Quartet, Urepel abesbatza eta Urepel Txiki. Udaletxeko plazan.
- 20:15** Umeentzako disko-festa Zipiriñen.
- 20:30** *Topa* dantza-ikuskizuna, Kukai Dantza eta Brodas Bros konpainien eskutik.

- Jauregizar plazan.
- 21:00** Pala profesionaleko partiduak udal pilotalekuan.
- 21:30** Taiji eta kung fu erakustaldia udaletxeko plazan, Sopelako Tai-txi Elkarteen eskutik.
- 21:30** McKensis kale-animazioa, Jauregizar plazatik hasita.
- 22:30** Suzko zezena udaletxeko berdegunean.
- 22:30** Kontzertuak txosnetan: Nazca, Iraule eta Woman Powah (Las Tea Party, Ane Guria, Mad Muasel, Berta Bittersweet eta Naiara).
- 23:30** Kontzertuak udaletxeko plazan: Revolta Permanent. Ondoren DJa.

Ekainak 30, zapatua

- 09:00** *etatik aurrera* XIV. kanpoko pintura-lehiaketa udaletxean, Zirrimarra elkartearen eskutik. Parte-hartzaileek 18 urtetik gorakoak izan behar dute.
- 10:30-13:30** Umeentzako 3x3 saskibaloitxapelketa Zipiriñe eskolan, Ugesaski taldearen eskutik. Partaide guztientzako sariak egongo dira.
- 11:00** Txistularien diana herriko kaleetan.
- 11:00** Zumba-ekitaldi parte-hartzailea, mundu guztientzat.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Txu-txu tren.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako jolas-parkea Zipiriñe eskolan: ludoteka, puzgarriak, futbolinak...
- 11:30** Gazteentzako ekintzak: Fun Box, trialsin erakustaldia, Balearen parkean.
- 11:30-13:30** XI. umeentzako pintura-lehiaketa, Zirrimarra elkartearen eskutik. Parte-hartzaileen adina: 0-17 urte.
- 11:30-20:30** Margolanen erakusketa udaletxe inguruan.
- 12:00** Herri-kirolak: emakume eta gizonen Bizkaiko lokotx-biltze txapelketa. Gernika plazan.
- 12:00-14:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan, Zirrimarra elkartearen eskutik: txapak, eta katrinak egiteko lantegia.
- 12:30-14:30** Txosnen irekiera. Tailerrak Plaza Beltza, Kuadrillak eta Aistak taldeen eskutik.
- 12:30** *Les Enfants* kale-ikuskizun ibiltaria, udaletxeko plazatik hasita.
- 13:00** Lagun Artea abesbatzaren kontzertua udaletxeko plazan.
- 13:00** Bitsaren jaia Zipiriñen.
- 13:15** Bertso-saioa txosnetan: Sustrai Colina, Kerman Diaz, Nerea Elustondo eta Anjel Mari Peñagarikano.
- 14:30** Adinekoentzako bazkaria Jubilatuen Etxean. 75 urtetik gorakoentzat. Aurrez apuntatu beharra dago, Jubilatuen Etxean bertan.
- 14:30** Jai-bazkaria Jauregizar plazan. Txartelak aurretik erosi beharra dago, turismo bulegoan edo Laiak tabernan, ekainaren 20-27 bitartean. Bazkalostean, Pancho Balbuenaren musika-saioa.
- 17:00-20:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan: eskultura, olgetarako jostintza eta esku osoko txotxongiloak.
- 17:00-21:00** Gazteentzako elementuak Balearen parkean: uretako puzgarriak, aire-dun mahaia...
- 18:00** Pintura-lehiaketen sari-banaketa, udaletxeko plazan.
- 19:00** Zelai erre txapelketaren finalak, udaletxeko berdegunean.
- 19:00-21:00** Dantza-plaza Erdizka Lauetan taldeagaz, Jauregizar plazan.
- 19:30** Poteo musikatua txosnagunetik abiatuta. Mozorroaren gaia: galtzerdiak.
- 20:15** Umeentzako ikuskizuna Zipiriñen: *Hondartzan*, Potxin eta Patxin taldeagaz.
- 21:00** VI. Esku Pilota Txapelketa Herrikoia, udal pilotalekuan.
- 22:30** *Su a feu* ikuskizun ibiltaria, Deabru Beltzak taldearen eskutik. Txosnagunetik udaletxeko plazarara.
- 22:45** Kontzertuak txosnetan: Holy Txala, Crucified eta Siroka.
- 23:30** Charlie & The Coconuts taldearen kontzertua udaletxeko plazan (60, 70 eta 80ko hamarkadetako kantuen bertsioak).



- ludoteka, puzgarriak, ahate-arrantza, futbolinak...
- 11:30-20:30** Margolanen erakusketa Sopelako Zirrimarra elkartearen eskutik, udaletxe inguruan.
- 12:00-14:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan: globofexia, taumatropoak egiteko tailerra eta mozorro mitologikoak egiteko tailerra.
- 12:00** Promozio-mailako Bizkaiko harrijasotzaile-txapelketa. Udaletxeko plazan.
- 12:30-14:30** Txosnen irekiera. Talo-, pilota- eta pandero-tailerrak Kurene Pilota Elkarteen eta Meñakoz Elkarteen eskutik.
- 16:30** Esku-pilota partidu profesionalak udal pilotalekuan.
- 17:00-20:00** Tailerrak Zipiriñe eskolan: estanpazioa, gailetak eta eba gomagaz imanak egiteko tailerra.
- 17:00-21:00** Gazteentzako elementuak Balearen parkean: barredorea, puzgarriak, errealitate birtuala, futbolinak... 12 urtetik gorakoentzat.
- 19:00** Kuadrillen arteko jolasak, txosnagunean.
- 20:00** Kuadrillen arteko txapelketaren sari-banaketa eta Arrate Illaro, Unai Mendiburu eta Naroa Torralba bertsolarien emanaldia. Txosnetan.
- 20:00** Boleroak Romance Latino taldearen eskutik, Jauregizar plazan.
- 20:15** Umeentzako ikuskizuna Zipiriñen: *Bidaia ezezaguna*, Xilipurdi antzerki-taldearen eskutik.
- 20:30** Oilaskoa eta sagardoa 1,50 euroan, udaletxeko plazan.
- 21:30** *Tosta* musika- eta dantza-ikuskizuna Tosta Band taldearen eskutik: Oreka Tx, Gwilym Bowen Rhys (Gales), Monica de Nut (Galizia), Rona Marit (Eskozia) eta Kukai taldeko dantzari bi. Udaletxeko plazan.
- 23:30** Urrats taldearen erromeria txosnetan.

Uztailak 1, domeka

- 09:00** Arku-tiroketako XXII: San Pedro saria, Ander Deunako landetan.
- 11:00** *etatik aurrera* III. okelazko paella-txapelketa udaletxeko plazan, Marmiton Kolektiboaren eskutik. Izen-ematea 11:00etatik 12:00etara.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Txu-txu tren.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako jolas-parkea Zipiriñe eskolan:

ENGLISH SUMMER PLAY-SCHOOL

UDA HONETAN, INGELESA IKASI ETA PRAKTIKATU. KURTZO TRINKOAK, UME ETA NAGUSI ENTZAKO.

INFO + WWW.HAMILTONIDIOMAS.COM

hamilton IDIOMAS

SOPELAN, Dr. Landa 6. LARRABASTERRAN, IBERRE 9. 946 763 012 info@hamiltonidiomas.com

Laster, zure pantailatxoan, eskualdeko agendarik onena!

app berria

hiruka
Uribe Kostako komunikazio taldea

Gaua argituko dute sutzarrek

San Juan bezpera edo udako solstizioa tarteko, ekainaren 23an suak argituko du eskualdeko lur-zerua. Hala, udaberria atzean utzi, eta udari ondo-etorria egingo diote uribekostarrek.

KEPA UGARTE MARTIARENA



Barrika Udaletzeko plaza

Barrikako Jai Batzordeak antolatuta:

21:30 Tai-xi erakustaldia.
22:00 Silexagaz sua egiten ikasteko erakustaldia.
22:30-23:30 San Juan sua ikuskizuna, Zirkozaurre akelarreagaz.
23:30 Rock&Rollo taldearen kontzertua.
23:30 Txokolate-dastaketa.

Ospakizunak ekainaren 24ra arte.

Berango Lantzarte

19:00 Umeentzako dantzaldia Azkona taldeagaz eta txokolate-dastaketa.
20:00 Sua piztuko dute. Hanburgesak eta sagardoa.
20:30 Xaibor musika-jartzailea.

Erandio Altzaga

Hainbat elkarte antolatuta:

18:00 Tailerrak, plazan.
19:30 Kalejira, herrian zehar.
21:30 Sua, Lanbide Heziketako institutuaren aurreko zabalgunean. Txokolate-dastaketa.

Getxo

San Nikolas plaza (Algorta)

San Juan Sua batzordeak antolatuta:
18:00 Dantza-festa, Puski eta Txurruksi pailazoakaz.
19:30 Munduko dantzen erakustaldia.
20:30 Txokolate-dastaketa; munduko postreak.

21:00 Konjurua eta Urdiaingo San Juan Kantaia, Itxartuko lagunakaz.

Eroan paper zaharrak sutara botatzeko (plastikorik ez, mesedez).

Zubilleta auzoa (Algorta)

Zubilletako Jai Batzordeak antolatuta:

20:30 Txokolate-dastaketa.
21:00 Andrés Isasi Musika Eskolako banda.
22:00 Zezen suzkoa.
22:15 San Juan sua.
23:00 Dantzaldia Bidean taldeagaz.

Ospakizunak ekainaren 24ra arte.

Malakate (Andra Mari)

Itxas Argia elkarteak antolatuta:

19:00 Txitxi-burruntzia, txokolate-jana eta sardina-jana.

Gorliz

Andramariazpi

Gaminiz Bizirik elkarteak antolatuta, Gorlizko Udalaren laguntzaz:

16:00 Umeentzako puzgarriak.
18:30 Roklaunrola umeentzako antzezlan, Begira taldeagaz.
20:00 Kalejira, trikitaliakaz eta buruhandiakaz.
20:30 Askaria txistorragaz eta txokolateagaz.
21:00 Sua eta txalaparta.
21:45 Umeentzako dantzaldia.

Errementari

Aratz Dantza Taldeak eta Urris taldeak antolatuta:

21:00 Txokolatea eta sua.

Leioa Udaletxe-ingurua

23:00 San Juan gaueko ikuskizuna, Hortzmuga taldeagaz, Boulevarden.
23:45 San Juan sua, udaletxean.
00:15 Txokolate-edana, J.R. Aketxe plazan.

Txosnagunea

Maritxu Teilagorrik antolatuta:

18:00 Akelarrearen entsegua.
22:30 Dantzaldia Trikiogaz.
00:00 San Juan gaueko akelarrea; ondoren dantzaldia berriro.

Ospakizunak ekainaren 24ra arte.

Lemoiz Armintza

Armintzako Jai Batzordeak antolatuta:

19:30 Triki-poteoa.
22:00 Sua. Bass Herri Sound System.

Plentzia Legarrondo

19:00 Kontu Kontari: San Juan Bagileko.
19:30 Txokolate-dastaketa.
20:00 Itsasadarretik suaren igoera.
22:00 Kontzertua, plazatxoan.

Sopela Jauregizar plaza

19:00 Babo Royal umeentzako ikuskizuna, Ganso taldeagaz, Jauregizar plazan.

Udaletzeko plaza

21:00 Txokolate-dastaketa.
22:00 Sua. Ondoren, Bilaka dantza-taldearen *Negua* ikuskizuna.

KUKULARRA (ERANDIO) | Sanpedroak

Ekitaldiak familia osoarentzat

Barikuan, ekainaren 22an, isiotuko dute ospakizunen hasierako suziria Erandioko Kukularra auzoan. Egun horretan sardina-jana egingo dute, festei indarrak ekin ahal izateko. Gero musika edukiko dute lagun. Zapatuan eta domekan familia osorako jarduerak izango dira, berbarako, Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako Olgetan Solas famientzako kirol-jolasak.

GORLIZ | San Pedro Eguna

Dantza eta giro alaia nagusi

San Pedro plazak hartuko ditu santua-ren omenezko ospakizunak haren egunean, ekainaren 29an, barikuan. Horretarako egitarau oparoa antolatu dute, bertaratzen diren guztien gozamenetarako. Arrastiko 19:00etatik aurrera Aratz dantza-taldeak dantzaldia eskainiko du; horren ostean areto-dantzak, sardina-jana, disko-dantzaldia eta zezen suzkoa egongo dira.

ARRIAGA (ERANDIO) | San Trifón

Betiko doinuakaz gozatzeko aukera

Erandioko Arriaga auzoko San Trifon jaietan, ohi legez, txupinak eta pregoiak abiatuko dute festen lehen eguna, ekainaren 29an. Garrantzi handia edukiko dute erromeria-doinuek. Barikuan Gauargi taldeak joko du; zapatuan, berriaz, Liskerrek emango du parrandarako aitzakia. Uztailaren 1ean eta 3an segituko dute ospakizunek; azken egunean, meza eta aureskua egongo dira.



Getxo Enpresa eta Algortako dendak elkarteek Euskararen laguna hitzarmena sinatu dute. Dagoeneko, Getxoko 115 saltoki dira Euskararen laguna sarean parte hartzeko konpromisoa hartu dutenak.

Anima zaitetz euskaraz egiten Getxoko saltoki eta tabernetan! Getxoko zein saltoki sartu litekeen *Euskararen laguna* sarean badakizu, bidali WhatsApp-a **688 675 345** telefono zenbakira. Gonbidapena egingo diogu sarean sartzeko.



Hirukira olgetan

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:



Han eta hemen

Begiratu ondo. Badira hogeitau gauza bi irudietan ageri direnak. Ikusten dituzu?

Irudi engainariak

Zortzi irudi zati hauek irudi nagusitik hartuak iruditzen zaizkizu? Erne, zortzitik hiru besterik ez baitira onak. Zeintzuk?



Pareak bai!

Galtzerdi mordo honen artetik batek parerik ez dauka, eta beste galtzerdi bat, berriz hirukoiztuta dago. Zeintzuk dira?



Arrotza

Elementu hauen artetik batek ez du multzoan egoteko baldintza nagusia betetzen. Zein da eta zergatik?



Dadoa

Irudi hau ebaki eta tolestu, eta dado polit bat aterako zaizu. Baina bost dado hauetatik hiru besterik ez dira zuzenak. Zeintzuk?



Sudokua

Bete itzazu laukitxo zuriak ELTXOA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, L, T, X, O eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zazpi ez, hamazazpi!

Aurki itzazu bi irudion arteko aldeak.
Hamazazpi dira guztira.



Lehiaketa Non dago?

Irudian Uribe Kostako zer leku ageri den igarritz gero, beheko sariak irabaz ditzakezu.

Argazkia **NON** egindakoa den badakizu?



Saria

Txikitxoentzako liburuak



HIRUKAzale txikientzat sekulako saria daukagu, udako oporraldian ere euskaraz irakurtzen segi dezaten. Sari hori irabazi gura baduzu, uztailearen 1a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



GETXO | Begoñako galeriak

Euskarazko mikro-antzerkiak helduko dira aste-akabuan

Ekainaren 22tik aurrera, euskarazko lehenengo antzezlanak ikusi ahal izango dira Algortako Begoñako galerietan, eraikinaren 100. urtemugan. Mikro-antzerkiko zikloan, hainbat antzezpen izango dira ibilbide zabaleko euskal autore eta antzezleen eskutik; hala nola, Isidoro Fernandez, Olatz Beobide, Aizpea Goenaga, Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe. Denera, hogeitabat minutuko zazpi antzezlan dira, eta horietatik lau euskaraz ikusteko aukera egongo da. Sarrerak doan batu daitezke, Begoñako galerietan, Ereagako turismo-bulegoan eta Villamonteko kultur etxean.

URIBE KOSTA | Hondartzetako ura

Bainurako egokia da jada inguruko hondartzetako ura. Hamar egunez bertoko uretan bainatzea debekatuta egon da, kutsadura fekalagatik.

PLENTZIA | Gazteluondo parkea

«Pinpilinplentzia» izeneko tximeleten oasia aurkeztu zuten eguaztenean udalerriko Gazteluondo parkean. Loreak landatu dituzte bertan.

LEIOA | Vicrila beirategia

Vicrilaren ekoizpena hobetzeko 675.000 euro inbertitu ditu Mivaricar taldeak, lantegiaren proiektua berri abiatzeko asmoz.

BERANGO | Euskal presoak

Saioa Sanchez preso berangoztarra urrundu dute. Soto del Realeko kartzelatik (Berangotik 382 kilometroa) Brievakora (435) eraman dute.

LEMOIZ | Espainiako aurrekontuen ondorioak

Armintzako Bimepi hiru milioiko laguntza ukatu dio Senatuak

PPren eta EAjren arteko sagailoa eragin du Mariano Rajoyren aurkako eta Pedro Sánchezen aldeko zentsura-mozioak, noraino eta Madrildik Armintzaraino: Bimep sozietateari hiru milioi euroko laguntza kendu diote.



URIBE KOSTA | Unibertsitatea


Genero-indarkeriaren kontrako protokoloa onartu du EHUK

Unibertsitateak batzorde bat sortuko du indarkeria-kasuez arduratzeko, 300 lagunek baino gehiagok parte hartu dute «ingurune seguru bat eraikitzea» helburu duen protokolo berriaren elaborazioan.



ERANDIOKO UDALA | Erandiogoikoko hilerriaren murrua zaharberrituta

«Erandioztar nagusienek ezagutzen dituzten irudi eta oroitzapenak berreskuratzen ahalegindu gara»



URIBE KOSTAKO ERNAI | Altsasuko gazteen espetxeratzearen harira

«Manifestazioan esan genuen bezala, sententzia honetan ez dugu onartzen absoluzioa ez den beste epairik»

15 lan

HIRUKAK eta Getxo Kultur Etxeak elkarlanean antolatutako argazkilaritza-tailerreko hamabost ikasleren lanak ikus daitezke egunotan Villamonteko erakusketa-aretoan.

Zahar-etxea eta ikastola sinbiosian



Santa Maria de Getxo egoitzara joan ohi dira Geroa ikastolako umeak.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxeari esker, Getxo Blues jaialdiaz gozatzeko sarrerak dauzkagu

Uztailaren 19tik 22ra bitartean Getxo Blues jaialdiaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, uztailaren 10a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Ekaineko saria



Udako oporraldian jateko pizza eta edari bi, Lemoizko Batzokiaren eskutik

Lemoizko Batzokiari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (zapatua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

2						9	7
4							
	6		3	7			
	4			6	1		8
		9				4	3
					9		
		1					9
				1	7		
8				2		3	6

			8	2			5
							9
5		8			4		1
	3		2		1		8
2						1	
			3	6			
		5	7			3	
3							
4	7					9	

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

8	9	6	9	8	1	2	7	4
1	7	9	5	2	4	6	8	3
2	4	8	6	7	5	9	1	3
6	7	2	5	9	8	1	4	3
4	8	1	7	8	6	9	5	2
9	8	5	1	4	2	7	3	6
3	1	2	4	7	9	8	6	5
7	6	8	3	1	5	4	2	9
4	6	5	2	9	8	3	1	7

1	9	8	5	2	6	7	4	8
8	7	4	5	1	9	2	6	3
6	7	2	8	4	8	1	5	9
2	1	7	6	8	4	9	8	5
9	8	4	8	5	7	6	2	1
5	8	9	1	2	6	3	4	7
4	1	5	2	7	3	8	6	9
3	2	8	9	6	5	7	1	4
4	6	9	1	8	5	3	2	7

Hitza emanda

Batzarra

*Ikusiak ikusi
eta, lagun zaharra,
ez al duzu ikusi
bat egin beharra?
Batzartzea, biltzea,
ez da gauza txarra,
elkartzetik baitator
herrien indarra!*



**JOSEBA
SANTXO
URIARTE**
Getxo



Lehen/Orain **Algortako Telletxe kalea** XX. mendearen hasiera



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO



Erretratua **Julen Ibinaga Ibarrolaza** Urpekaritza-irakaslea

Urpekaritza egiten 40 urte daroatza Julen Ibinaga algortarrak. Munduan zehar bidaiatzen ez dagoenean, kirol hori irakasten du Tarpoon eskolan, Getxoko kirol-portuan.

TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Gazte hasi zen urpekaritzan Julen Ibinaga (Algorta, 1962), 16 urteagaz, eta denborak aurrera egin ahala, bizitzeko eta lan egiteko modua bilakatu zitzaion. 1994an, beste lagun batzuek batera, Amerikara egin zuen bidaia, maila aurreratua gaingitzeko asmoz. «Hamazortzi orduko entrenamenduak egin behar genituen hamabost egunean, Floridan. Oso gogorra izan zen», esan digu.

Horren ostean, Tarpoon eskola-denda ireki zuen Getxoko kirol-portuan. Hogeitaz egin ditu aurten negozioa abiatu zuenetik; izan ere, kirol-portuan ipinitako lehen komertzioa da Ibinagarena. Urpekaritza-maila guztiak ikas daitezke han.

Bidaiatzea bere ogibidearen parte da: «Itsaso Gorria, Karibea, Indonesia, Maldibak, India, Indonesia, Malaysia... Hamaita txoko bisitatu dut munduan. Mugitzea ezinbestekoa da

«Itsasoaren hondoa plastikoz eta zaborrez beteta dago. Ez dakit noiz ohartuko garen mundua akabatzen gabiltzala»

urpekaritza egiten dugunontzat, itsasoaren alde guztiak eza-gutzeko grina pizten baita gudan», dio. «Ez dakit zer den itsasoan ikusi duan gauzarik harrigarriena. Egia da gaztetan ia metro biko marrazoak edo baleak ikusteak zirrara handia sortzen zuela, baina urteek aurrera egin ahala konturatu naiz momentu eta txoko bakoitzak bere bereizgarriak dituela, edozein tokitan disfruta dezakedala».

Urpekari beteterano hau kezkatuta dago kutsadura dela eta: «Bistan da orain dela hogeitaz egin baino arrain gutxiago daudela, eta itsasoaren hondoa plastikoz eta zaborrez beteta dago. Ez dakit noiz ohartuko garen mundua akabatzen gabiltzala». ◀

